

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUHATZU DONEMILIAGAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa ordaindu behar dutenen errolda jendaurrean jartzea, eta 2024ko bigarren seiheleko ordainagiriak borondatezko epean ordaintzea

Zuhatzu Donemiliagan, etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasa (2024ko bigarren seihelekoa) ordaindu behar dutenen errolda egin da. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodunez jarriko da jendaurrean errolda hori, interesa dutenek aztertu eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek Araban dagoen Zuhatzu Donemiliagako Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan aztertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honen bidez, erroldako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorritik Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsoa, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Borondatezko aldi ordaintzeko epea 2025eko martxoaren 13an hasi eta apirilaren 13an bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2025eko apirilaren 13an kobratuko zaie.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak: tasaren ordainketa helbideraturik ez daukatenek Kutxabanken bulegoetan ordaindu beharko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo Vitalneten. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Finantza erakundeetan helbideratutako ordainketak: Zuhatzu Donemiliagako Administrazio Batzarrak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den finantza erakundeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekargu eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zuhatzu Donemiliaga, 2025eko otsailaren 6a

Lehendakaria

ANA LOPEZ DE LUZURIAGA SAN PEDRO